

Lainoetan dago azken erabakia

Ariz Mutilozabal 2025eko azaroaren 25a

Entzun ▶ ▼



Nerea Loiola Oraire liburua eskuetan duela. (Erein)

Oraire izeneko laugarren eskapu liburua argitaratu du Nerea Loiola idazleak. **Aurrez** argitaratutako **Azken lanhūtarra** lanaren moldaketa eta jarraipena dela kontatu du, eta genero fantastikotik asko duela. **Durango Azokaren atarian**, Guka osatzen ari den **DAtozenak** serieko erreportajea da hau.

Gaztetxoei zuzendutako *Oraire* lan berria kaleratu du Zarauzko bizilagun Nerea Loiola debarrak (Gipuzkoa), Erein argitaletxearen eskutik. Eskapu bildumako laugarren liburua du, eta aurrekoen egitura antzekoa badu ere, "bat gehi bi" dela adierazi du idazleak. Izan ere, 2019an idatzitako *Azken lanhūtarra* eleberriaren moldaketa jaso du eta, era berean, haren bigarren atala.

"Hasierako asmoa zen nire lehen lanaren bigarren zatia idaztea, baina hura egituratzen ari nintzela, eskapu liburuen proiektuan murgildu nintzen, eta, orduan, ez nintzen inoiz iritsi horretara. Aurten, eskapu liburuari heltzerakoan, bat-batean bururatu zitzaidan agian aukera bat izan zitekeela istorio hura molde horretan kontatzea, baina bigarren zatia ulertzeko, lehenengoa ere ulertu beharra dago. Orduan, editorearekin hitz eta egokitzapena egitea proposatu zidan", zehaztu du Loiolak.

Aurreko liburua irakurri duenari, liburuaen lehen erdia ezaguna egingo zaio, baina ezberdintasunak antzemango ditu oraingo honetan. Irakurri zuen garaian, erabakiak hartuta zeuden, "istorioa berari kontatzen zitzaien", eta kasu honetan, aldiz, "berak erabaki ahal izango ditu gauza batzuk", eman du aldaketaren berri. Gainera, bigarren zatia erabat berria egingo zaio irakurleari, "aurreko istorioaren segida izango baita".

Lehen eleberr hartan euria garraiatzen eta banatzen zuten laino gidariak eman zituen ezagutzera Loiolak, eta batik bat, Oraire izeneko lainoa. Liburu honetan ere pertsonaia bera mantendu du, izenburua ere eman diona. "Eskapu liburutuan protagonista nagusia irakurlea den arren, beste liburutuan ez bezala, honetan badago garrantzi handia duen beste protagonista bat, eta hori Oraire da", egin du azpimarra.

Errealitate fantastikoa

Natura eta euriaren zikloa bete-betean lantzen ditu liburuak. Gaur egun, puri-purian dagoen klima aldaketarekin bat dator gai hori, gainera. "Normalean, liburuak ez ditut tematika jakin bati buruz idazten. Istorio bat bururatzen zait, eta idatzki ondoren konturatzen naiz zeri buruz hitz egin dudana. *Azken lanhūtarra*-ren oinarrietako bat da ingurumena eta larrialdia, eta lan honetan ere heltzen zaio gai horri. Izan ere, laino gidariak dira euriaren zikloa ongi joateaz arduratzen direnak, eta dakiguna da gizakiak hegazkinak sortu zituenetik laino gidariak hiltzen joan direla. Guri klima aldaketa kutsaduragatik dela esan digute, eta hori hala da, baina liburuan planteatzen dena da laino gidariak desagertzen joan direlako ari dela gertatzen", kontatu du idazleak.

Beharbada, beste eskapu liburuekin alderatuta, azken honek dezente lantzen du genero fantastikoa. "Errealitatea fantasiarekin lotzen du, eta sortzen du halako mundu paralelo bat", gaineratu du. "Batzuek esaten didate, liburua irakurri ondoren, lainoei ezberdin begiratzen dietela. Nola ez dakigun benetan zer dagoen hor...".

Eskapu liburutuan erabakiak hartzeko eskatzen zaio protagonistari: irakurleari, alegia. Erabaki batzuk txikiagoak dira, baina beti daude transzendentalagoak diren hautuak. "Kasu honetan, egin dudana da, gaur egungo gizarte indibidualista horri isplu egite aldera, muturreraino eraman errealitate hori, eta protagonistari zera galdetu: zer uzteko prest zaude ongizate kolektiboaren alde edo mundua salbatzeko?". Jakitun da galdera "oso potentea" dela, barruak inarrossten dituen: "Benetan, guztiok jarri beharko genuke ataka horretan".

Irakurketa aktiboa

Euskarazko eskapu liburuen idazle erreferente bihurtu da Loiola. Duela urte batzuk abiarazi zuen formularekin asmatu egin du, eta arrakastatsu bihurtu da gaztetxoen artean. "Hutsune bat bazegoen, eta horri heldu nion. 80ko hamarkadan bazeuden liburu gorri batzuk, itzulpenak zirenak, baina, ondoren, orain artean, inork ez zuen ezer egin. Ni animatu egin nintzen, zer gertatuko zen jakin gabe, eta *7G udalekuak* argitaratu genuenean konturatu ginen, bada, behar zela horrelako zerbait. Izan ere, jendeari pila bat gustatzen zaizkio horrelako liburuak". Ondoren, semeak hala eskatuta, Espaku Txiki liburuekin ere animatu zen.

Azkenean, formula horrek irakurketa aktiboa eskatzen du irakurleen aldetik, jolasaren eta enigmaren bidez. "Pentsa daiteke horrek literarioki urrundu egiten duela irakurlea, baina niretzat kontrako efektua lortzen du: erabakiak hartu ahal izateko, enigmak ebazteko eta istorioan egoteko oso irakurketa kontzientea egin behar duzu. Kapitulu bat erdizka irakurtzen baduzu, gero ez dakizu non zauden. Beraz, eskatzen du irakurlea istorioan barneratzea. Nik uste dut horregatik funtzionatzen duela".

KULTURA

Azpeitia Gukak zu bezalako irakurleen babesa behar du tokiko informazioa euskaraz eta modu profesionalean lantzen jarraitzeko.

Izan Gukakide

Erantzun ▼

Ufito haur moda
Azpeitia - Jantziak: Jantzi dendak

Pilates eta Mugimendua
Azpeitia - Pilates

Garai gizonezkoen ile apaindegia
Azpeitia - Ile apaindegiak

Kaioa arropa denda
Azpeitia - Arropa dendak

Mikel Gorrotxategi "Alabier":
"Jendeak dantza egiteak beste energia bat ematen digu trikitilari!"

Idatziz jaso ditu esne berriketak, Uxue Alberdik

Bizimodua garestitu den adina hazi al dira herritarren errentak?

Errenta nahikoa ez denean

Ikusienak

Mahai bueltan ospatu dute San Eloi eguna
Mailo Oiarzabal
abe 01, 15:45 **JAIAK**

Goienetxekoak, Gabonetan herria apaintzeko prest
Mailo Oiarzabal
abe 01, 12:41 **GIZARTEA**

Alde Zaharrean alokairuko etxebizitza sozialak eraikitzeko hitzarmena landuko dute udalbatzarrean
Maddi Txinburreta
abe 01, 08:00 **UDALA**

Larrialdietan, babesleku
GUKA PAPERREKO ERREPORTAJEAK
Mireia Galarza Basilda
abe 01, 10:08 **GIZARTEA**

Auto bat ibaira erori da, eta gidaria arin zauritu da
Iñhitzza Elustondo aza 29
GIZARTEA

Herri kirol saioa, Landetako festetako hitzordu ezinbestekoa
Iñhitzza Elustondo aza 29
JAIAK

UROLAKO KOMUNIKAZIO TALDEA KOOP. ELK

Soreasu auzoa zg., Dinamoa sormen gunea
20730 Azpeitia (Gipuzkoa)
Telefonoa: 943-15 03 58 | Helbide elektronikoa: azpeitia@ukt.eus

Codesyntaxek garatua



HONI BURUZ

LEGE OHARRA

PUBLIZITATEA

ARAJAK

HARREMANETARAKO

RSS



Gertuko informazioa, euskaraz

AIARALDEA	AIKOR	AIURRI	ALEA	AMEZTI	ANBOTO	ANTXETA IRRATIA	ATARIA	AZPEITIA GUKA	AZKOITIA GUKA	BARREN	BEGITU
BERRIKETAN	DROGETEN ITURRI	ERRAN	EUSKALERRIA IRRATIA	GEURIA	GOIENA	GOIERRI TELEBISTA	GUAIXE	GUKA	GUKA TELEBISTA		
HIRUKA	KRONIKA	MAILOPE	NOAUA	OIZMENDI TELEBISTA	ORIO GUKA	PLAENTXIA	TXINTXARRI	URIOLA	ZARAUTZ GUKA		

Matx Gurean Tlap

Tokikom publikizatzea